

## PUTA BATEN ISTORIAO

---

Demagun orain kontatzera noan hau nire istorioa dela. Demagun txikia nintzelarik ikerketa eta deskubrimendu garai paregabea izan nuela, kalean lurtean topatzen nuen guztia ukitzen nuela, poltsikoetan gordetzen nuela eta gero, etxean, lanak izaten zituztela txikleak, klipak, barraskiloak eta harriak poltsikoetatik kendu ahal izateko. Demagun auzoan, alde batetik bestera ibiltzen nintzela eta auzotarren etxeetara hurbiltzen nintzela merienda goxoenaren bila. Demagun etxekeok hori guztia onartzen zutela, “grazia” egiten ziela eta lasai asko egunero-egunero hau egiten jarrai nezakeela. Baina demagun, deskubrimendu eta auto-plazer bilaketa honetan nire klitoria eta bagina ukitzen hasi nintzela, eta asko gustatu zitzaidala. Plazer iturri handia eta nirea zela konturatu nintzela, eta honela masturbazioa topatu nuela, kuxin batekin, sofaren besoekin, ohean, eskuarekin ... Demagun dena primeran joan zela heldu batek “Atera eskua hortik, zikina da!” esan zidan arte. Demagun, egun horretan ikasi nuela nire alua zerbait zikina zela (lurreko txikleak baina gehiago!) eta masturbatzeari utzi niola.

Demagun, urte batzuk beranduago, institutuan nengoela, mutilekin ligatzen hasi nintzela. Lagun guztiek harremanak zituzten, eta ni atzean geratzen ari nintzela, beraz nire lehen muxuak bilatzeko irrikitan nengoela. Baina ezin nuela gehiegi ikusarazi ligatu nahi nuenik, ez nuela lehen muxu horiez gain askoz gehiago eskatzerik, ezin nuela gaur batekin eta bihar bestearekin probatzen ibili, ... Sexualki aktiboa bai (bestela moja bat nintzateke) baina ez gehiegi izan behar nuela, ezin nuela puta bat izan. Hortxe zegoen nire marra. Demagun beldurra nuela marra hori zeharkatzeko, emakume onaren eta txarraren arteko marra zeharkatzeko. Marra hori sexualitatean, gorputzaren ezagutzan eta plazeraren kudeaketan markatua zegoen. Beraz, demagun, sexu-heziketa egitera etorri ziren gazteek masturbatu eta klitoria ikusi, ukitu eta maitatu behar genuela esan zigutenean klaseko guztiek barre egin genuela.

Demagun, zenbait urte beranduago, unibertsitatean, mugimendu feministan ibiltzen hasi nintzela eta gure herrian erakusketa bat antolatu genuela herriko historiako emakumeak itzaletik argira ateratzeko. Demagun, fabrika bateko emakumeen argazkiak bildu genituela, eta ikasi genuela, emakume horiek, frankismo garaian lantegietan ibili zirela, askotan seme-alabak bakarrik hezten zituztela, eta gainera sindikatu eta haien eskubideen alde borroka egin zutela. Demagun, argazki hauek erakusten ari ginela emakume nagusi bat hurbildu zitzaidala, eta esan zidala emakume langile horiek putak zirela esaten zela herrian. Esan dezagun, egun horretan konturatu nintzela, puta estigma, sexualitateetik harago, sistema oso baten mantentzeko estigma bezala erabiltzen zela, familia heterosexualaren barruan, lan banaketa eta rol banaketa konkretuak egiteko balio zuela ere, emakumeak etxean mantentzeko, ekonomikoki aktiboak ez izateko, botere harremanen baitan menpeko izateko.

Demagun, hau guztia niri gertatu zitzaidala, edo zuri. Sistema heteronormatibo baten barruan, seguru zuri ere gertatu ahal izan zaizula. Emakume guztiak “bestearen”, txarraren beldurrekin hezi gaituzte, izan behar ez dugun horren baitan. Gure heziketa guztia puta bezala izendatuak izan ez gaituzten bideratu dute. Honek gainera kolektibo konkretu baten estigmatizazioa ekarri du. Bizi txarreko emakumeak, kontrolatuak eta lanbide okerrekoak ... Zenbat aldiz entzun ditugu hitz hauek sexu langileez hitz egin dugunean? Biktimizazio honi aurre egiteko bide ezberdinak hartu dira. Bata, zenbait instituziok hartu dutena, politika asistentzial eta geroz eta punitiboagoak sortu dituen. Aurre egin baino, biktimizazioan, estigmatizazioan eta zigorrean izan du oinarria. Bestea, antolakuntzaren eta saretzaren bidea izan da. Azken urteetan sexu langileen eta haiekin lan egiten duten zenbait elkarteren arteko aliantzak medio, sexu langileen sindikatuak, elkarte feministak, ... sortu dira, haiengatik hitz egiteari utzi eta haiek ahots propioarekin hitz egiteko. Euskal Herrian, “Gu Gaitun” elkartearen sorrerak, sexu langileekin lan

egiten duten talde ezberdinen koordinazioa bultzatu du eta bide luzea opa diogu! Mugimendu guzti hauek egin dezaketen lana handia da, alde batetik sexu langileek duten egoera eta eskakizunak elkartu eta borrokatzeko, baina baita, gure buruetan oraindik dagoen marra hori deuseztatzeko. Baina ezin dugu mugimendu hauen gain utzi ardura guztia. Gurea ere bada. Prostituzioaz, putez, estigmez... hitz egin behar dugu. Ikusarazi, salatu eta eraldatu behar ditugu. Edo gure egin. Queer mugimenduak egin zuen bezala, hitzak bereganatuko ditugu, eta puta izateak sexualki askea, independentea, norbere buru eta gorputzen jabea, langilea, sistemaren kontrakoa... izatea esan nahi badu, ni ere puta bat naiz.

Demagun, hasierako historia imajinatu besterik egingo ez dugun eguna iritsiko dela.

Oihana Etxebarrieta Legrand  
Euskal Herriko Bilgune Feminista  
2015eko Ekainaren 2a